

NOIZ ETA NON ERABILI ERE ETA NOIZ ETA NON ERE BAI

1998-IX-25

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak Areatzan 1998ko uztaillean egin ziotuen jardunaldietan ahoz zuzendu nuen oharra dakart idatzirik *Euskal Gramatika, lehen urratsak-V* liburu honetara.

Hala dio Gramatika batzordeak proposaturiko arauak:

ERE eta lagunak

7. Hegoaldean NI ERE BAI esaten dugu;

iparraldekoek eta nafarrek NI ERE, BAI gabe. (Fotokopietan banatu zizkiguten apunteetan, 10. orrialdean).

Baieztapen horren aurrean, itaun hau luzatu nuen: Iparraldean ondo dagoen forma hori Hegoaldean ere sistematikoki aldatu behar dugu euskara estandarrrera? Itaun horren bitartez, azken finean, biak batera hartuta izen propiorik ez daukaten ikerketen gaiaz arduratu nintzen, hau da, “linguistika eta pedagogiaz”. Orain, ostera, orduko galderari erantzuna ematen ahaleginduko naiz. Beti ere eztabaidarako txostena izanik eta guztion ekarriak jaso ondoren modu definitiboan erredaktatzekoa, nahiko iritzi diot ildo nagusiak bideratzeari. Badakit halaber, hausnarketa honen xedea Jagon Saila dela, zeinetan praktikak erakusten digunaren arabera, gramatikako ikerketa nekeza bada, jagotea ere errezago ez den.

“Egia da hizkuntza bat sistema dela, eta sistema horren zatiak edo osagarriak ez direla deus sistemaz kanpora. Aitortu beharrean gara, ordea, mamira bagoaz, euskara ez dela oraingoz sistema bat, diasistema bat baizik, eta diasistema horren itxura batera heldu behar dugula, gero mamia batuko baldin badugu” zioen Larresorok (Larresoro, 1974:26). Ordurik hona aurrerapen itzela egin dugu. Corpusaren planifikatze haietan, normatibizatzean, hau da, batasuna egitean, euskara —edozein hizkuntza bizi bezala—, diasistema egoeran izanik, arauaren hautatzea delikatu gertatu zela bagenekien. Gaur, ostera, orduko sentibiltateaz eta batasun giroaz ahazteko arriskuan aurki gintezke.

Oinarrian euskalkien arteko den gai honetan, dialektologian inoiz baino gaituago datorren uholde berria daukagun arren, “Euskalkien arteko diferentzia

zertan den oraindik azterkizun litzateke...” irakur dezakegu oraindik. (Patxi Goenagak Eusebio Osaren “Euskararen hitzordena, 1990:11) Hala ere, proposamenetan aurreratuko bada, diferentzien arteko erabakia hartu beharra egongo da. Alde honetatik, Gramatika batzordeak damaigun araua arteza da, eta zuzentasunaz ez daukat esatekorik.

Nik har baneza batzordearen erabakia bere horretan, eta espainoletik datozen neska-mutilekin euskaltegi nahiz ikastoletan jardun, erraz frogatuko nuke Patxi ERE eta Patxi ERE BAI formen artean lehena dela nagusitzen, bigarreanean indar berezia ezarri ezik.

Orain Gramatika batzordeak onetsi duenez gero, beste barik onartuko dugu eta lehen oker zena orain arteza dela esan? Zeren guk azaldu ohi duguna hauxe baita, bigarren esaldian aditza ezabatzen denean, *bai* edo *baita*, edo *ez* edo *ezta*-ren laguntza behar duela. Niri neuri dagokidanez, idazlan jaso bakanen bat edo ikasle hartaratua, ERE eta ERE BAIren arazoaz ongi jabetua ez bada, Patxi ERE BAI irakatsi behar dut Hegoaldean, eta Patxi ERE interferentziatzat hartu.

Euskaraz jakinik erdaraz bizi den edo hizkuntzaren iturburu espainola duen gaztearentzat, ERE-k TAMBIÉN-en parekotasunean funtziona dezake (ERE, aussi, etiam). Ondorioz, “Yo también” adierazteko unean NI ERE atera dakioke interferentziaren eraginez. Egoera ezaguturik, eta Iparraldean zuzen dela jakinda, ontzat emango banu, neurri handian bigunduko litzateke irakaskuntza, ezen Patxi ERE onartzen dudan ber, onar dezaket *asko jende* eta abar, hots, erdaldunek interferentzien eraginez jasotzen dutena. Horrela jokaturik, edozein euskaldun ohartuko litzateke Hegoaldeko hiztunen tradiziozko forma eta berriaren —nahiz eta Iparraldeak tradiziozko izan— artean, erdararen antzekotasunagatik, berria, hots Patxi ERE inposatuko dela. Gainera, eragin erregresiboz, euskaldundutako irakaslegoaren gehiengo handiak jadanik, Patxi ERE irakasten du, nire antzerako euskaldunen ahaleginaren bizkar.

Gaztelanismoen eragina —historikoki euskarak jaso duena aztertzen hasi barik— eragozle handia da euskararen estandarizazioan. Batetik, euskaldun hegoaldekook espainolez egin ditugulako ikasketak eta, bestetik, erdara sorburu duten euskaldun berriak gaztelanismoak dakartzatelako, bai lexikoan, syntaxian edo morfologian, baina batez ere fonologian. Gainera, mediaren bidez gizar-teko maila guztietara hedatzen dira. Honi gehitu behar zaio, modu batera eragiten duela espainolak eta beste batera frantsesak.

Berez, erdaratik datorren hiztunarentzat ez da arazo, aldatzen du erdarakoa euskarara eta kito. Arazoa euskaldun betikoengandik etorriko da forma linguistikoko hau desegokitzat jotzean. Konponbidea, aldiz, euskaldun alfabetatuen pisu soziologikotik hel daiteke; hizkuntzaren tradizioaren kontzientzia minimoaren jabe izatetik.

Estatusak damazkigun buruminak konplexuak direla aipatzearekin, eta daktikaren eragina bera ere alde batera lagata, Patxi ERE/ Patxi ERE BAI-ren

arloan argi daiteke neurri baten, zuzentasunaren ikuspegitik baino egokitasun, koherentzia eta kohesioaren ikuspuntutik arakaturik.

Patxi ERE/ Patxi ERE BAI formen egokitasuna:

“Testua egoerara egokitzea, testua eta kontestua (testuingurua) lotzea esan nahi da izen honekin. Testuaren eta testuaz kanpotiko kontestuan dauden osagai fisiko eta sozialen lotze eta egokitze planari deritzogu horrela” (Andres Alberdi, Eskola Gramatika, 1996:28).

Egokitasun honetan, solaskidearen maila kultural, lagunartekotasun edo jatorri dialektalek eragina dute testuan. Ez dugu modu berean berba egiten Mungiako familian edo Donezteben, ez eta hiru urteko neskatxoaren aurrean eta hamazortzikoarenean, zeren solaskidearen ezaugarriak desberdinak baitira.

Era berean, solaskideen arteko paper sozialak ere komunikazio modua - testua- baldintzatu egiten du. Ni irakasle rola Azpeitian betetzen banenbil, Patxi ERE BAI irakatsiko nuke. *Egunkarian* eta Erramun Baxoki erantzungo banio, egokitze hartuko nuke Patxi ERE sartzea, ezen bi kontestu desberdinetan nire paper soziala desberdina izatean, komunikazio modua, berba egiteko modua ere desberdina izango bailitzateke. *Egunkariako* artikuluetan ere, leku eta inguru sozial berean nenbilkeen arren, jokabide arruntean, neure hamabosteroko artikuluan Patxi ERE BAI perpausarekin jokatu nuke, Baxok jaunarekin Patxi ERE erabiliagatik, zeren leku bera izanda ere, funtzio sozial desberdina hartzen baitu *Egunkariak*. Alderantziz, Baxokek berak, hala *Herrian* nola *Egunkarian* astero idatz ditzakeen artikuluetan, guztiz egokiro erabil dezake Patxi ERE.

Bestalde, asmo komunikatiboari dagokionean, helburua jasotzailearen atsegin literarioa bada, eta ipuin, olerki den testua idatzi, hor estilistikak forma bietarako bide ematen du, dela ERErako, dela ERE BAIrako.

Erregistroari lotzen bagatzaizkio, hots, egoeraren ezaugarrien arabera (asmoa, gaia, formaltasun maila) igorleak hautatzen du hizketa modua. Badakigu, berbetaren jabe den hiztunak, normalean, erregistro desberdinak menderatzen dituela, eta gai dela eleketa komunikazio egoera desberdinetara egokitzen. Alde horretatik, ez genuke beldurrik ukan behar Patxi ERE edo Patxi ERE BAI proposatzean, ezen egoki jokatuz gero ez baikara hitz egiteko molde berarekin baliatuko Arrasaten, lagunaren artean, eta Nafarroan Euskal Herria Irratiko mainguruan. Hemen, arunt erabiltzekoak dira Iruñeko *erran*, *bertze* edo *anitz*. Arrasateko tabernan, ostera, egokitasuna galduko lukete, nahiz eta bitzuetan ahozko erregistroan jardun. Zentzu berean, desegokia da futboleko esatari profesionala, jendearen eskariak eskari, *usten detetik uste dutera* ez aldatzea. Igorleak, gaiaren kanalaren eta inguru sozialaren araberrako egokitzapena egiten saiatu beharra dauka.

Ahoskerari buruz arituko bagina, ezin eskatuko nioke Gernikako euskaldunari Lapurdikoa imitatzeke edo euskara estandarrean jatorri dialektala ez

igartzeko bestean mintzatzeko —ahozko euskara batua erabakita balego ere— baina hizkuntzaren gainerako ataletan —lexikoan, morfologian, syntaxian, besterik ere eska daiteke. Hala ere, kodigo linguistikoa argia behar dugu edo akordio soziolinguistikoa, euskalkikoa euskalkirako eta batua baturako noiz, non eta nola seinalatuko diguna.

Koherentzia eta kohesioa:

1.1. Edozein testuk, kohesioa eta koherentzia eskatzen du. Ezin burura dakiok nehoi paragrafo berean, orain Patxi ERE eta lerro pare bat beherago Patxi ERE BAI idaztea. Testua antolatzeko erabiltzen ditugun ERE/ERE BAI lokailuak, sakonean testu antolatzaileak dira, ideia berriak txertatzeko baliozko zaizkigunak

1.2. Entonazioa: entonazioa garrantzi handiko kohesio modua da hizkuntza mintzatu. Hala igartzen dugu, esate baterako, esaldia amaiturik dagoen ala ez.

Patxi ERE BAI esatera ohituak gauden euskaldunok, Patxi ERE entzuten dugunean, beheranzko tonemaz baino goranzkoaz entzuten dugu, hau da, hartzaileok oraindik ere segida espero dugu; enuntziatio horretan zeozer gehiago erantsiko den ustean geratzen gara.

Dio Iñaki Caminok, (Nafarroako hizkerak, 1998:142) “Ikertzaile orok bere azterketetan izan ohi duen lehen arazoetarik bat, hiztunak aldameneko hizkerarekiko desberdintasuna zein ezaugarriren arabera hautematen duen asmatzea edo ohartzea izaten da. (...) Batzuetan ematen du lehenago eta hobeki ohartzten dela hitzuna lexiko arloko desberdintasunez ahoskerazkoez baino (...) Maiz entonazioak balio identifikatzaile —etnikoa— edo erkidegokoa izaten du”.

LABURPENA:

Halan da ze, bide egokia izan daiteke Patxi ERE eta Patxi ERE BAI formen erabileran Iparraldekoek eta nafarrek, bata bestearen aldakan dauden eskualdeetako dialektoen kontaktuaren kasuan gertatu ohi den bezala aktiboki Patxi ERE erabiltzea eta pasiboki ezagutzea Patxi ERE BAI; Hegoaldekoek, oro har, alderantziz. Horretan, nork bere inguruko euskaldunekin identifikatzeko baliozko izateaz batera gainerakoekiko hartuemanetarako ere baliagarri gertatuko litzateke.

Irakaskuntzan printzipio honi jarraiturik jokatu nuke: “Azken finean euskarak aurrera egingo badu, tradizioa haurtzarotik gordetzen duten hiztuntan oinarri harturik izango da eta euskaldun berriek horretara makurtu beharko dute guztion artean helburura abia gaitzen”. (Alfonso Irigoien, ASJU 1991:1287). Beraz, Hegoaldean erdararen indarrak dakarren Patxi ERE baino euskaldunen Patxi ERE BAI, eta alderantziz.

Literaturan, hizkuntzaren ederra bilatzen dugunean, idazlea da nor, maila jasoan diharduela jakinik, erabilera egokiaz baliaitzeko.

Edozein testutan, ahozko dela nahiz idatzizko, bere koherentzia beharko luke gorde, arestian aipatu bezala, lehentxeago ERE izan dena ERE BAI bilaka ez dadin

Ahoz zein idatzizko testuetan, erregistroek, hizkuntza mailek eskaintzen digute argitasun nahikorik, jakinda euskaldunon kasuan hizkuntza estandar kultura eta herritarra izan litekeena —gaurkoz ehuneko oso altuan euskalkiek betetzen dutena— dauzkagula. Egoera normalizatuz joango zaigun heinean, izan-go ditugu estandar jaso, eta arrunta, euskalkiekin batera, beti ere, batasuna proposatu zen moduan proposatu zelako, idatziak bereganatu izan duen eredu bakartasunaren ondoan, ahozko -euskalkietako- ekarri gero eta ugariagok orbiztuak. Ezen euskara estandarrak eta euskalkiak bata bestearekin iraziz joan daitezten, euskalkiek behar duten batutiko eraginaren bestekoa behar baitu euskara batuak ere ahozko tradizio biziakoa. Azken finean, ikuspuntu kontua baik ez da, batzuek euskara batutik beha dezakete euskalkia, besteek euskalkitik egin diezaiokete euskara batuari so.